

...eta

Kitto!

865 zkio.
2013-XI-8



Eibartarrek Gernika astindu zutenekoa



ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

ZURE BIGARREN

VARILUX®
LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI*

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



LANTALDE PROFESIONAL

BIKAINA, IZEN-ABIZENEKIN

TELEFONO BIDEZKO ARRETA



URGENTZIAK
24 ORDUTAN,
688 608 142

Urgentzietako Kostu Gehigarria.



ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

ETXEZ-ETXEKO
ARRETA-ZERBITZUA

Etxeko arreta:
Pazientea jaso eta etxera itzuli
GALDETU!



ESKANTZA
BEREZIAK

Jarraitu urte osoan gure sasoian-sasoiko promozioak.
Abantaila ekonomiko handiak eta bestelako aukera odontologikoak.
Aprobetxatu!

ZERBITZU INTEGRALA



AKREDITAZIOAK

Antonio Murillo Doktorea
Hezur Birsortuntza eta Ehun Bigunen Maneiuko Zuzendaria.
Lleidako Unibertsitatea eta Madril.
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.
Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.
Implantologia Masterreko Irakaslea.
Lleidako Unibertsitatea.
Kirurgia Masterreko Irakaslea.
Salamanca Unibertsitatea.
Unibertsitate Institutuzioetako Irakasle gonbidatua
Madrilgo Unibertsitate Konplutensean, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan, eta Sevilla, Bartzelona, Almeria, Lleida, Malaga... Unibertsitateetan.

Ainhoa Zulueta Doktorea
Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian.
Leongo Unibertsitatea.
Aho Kirurgian Diplomatu.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutesean.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso doktorea.



MUTUA ETA ASEGUROAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
...GALDETU!



IRAZABAL

clínica dental Julián Etxebarria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Internet gizartearen ordezkia edo suzedaneoa da: gauzak aldi berean egitea ez da elkarrekin egitea. M-15ean sarea isildu egin zen eta kalea izan zen berba egin zuena"

(CESAR RENDUELES, FILOSOFOA)

"Guraso asko deskonektatuta daude; ez dute ulertzen haurrek alde emozionaletik hitz egiten dietela eta eurek alde logikoa erabilia jarrera aldatzeko ematen dizkieten arrazoiek ez dutela inolako eraginik"

(LETICIA GARCES, PEDAGOGOIA)

"Kooperatibismoa da galga, ala kooperatibek laga diote mugimendu kooperatibista izateari? Protagonista direla sentitu behar dute langileek, ez txotxongilo edo behargin hutsak. Kooperatibetan ez dago soldatarik, eta hori gehiengoak jakin ere ez daki"

(KOLDO SARATXAGA, NER GROUPEKO BURU)

"Matriarkatuarekin lotutako irudi bat eman zaio euskal emakumeari, baina topiko bat izan da askotan. Sinbologia horretatik harago, emakumeak berak ez ditu bere ekarpenak egin, edo egin ditu baina askotan ez dira ikusgarri egin"

(IZARO GONZALEZ, SORTZAILEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

JOLAS.- Olgeta, apusturik gabeko jokoa. "Guk gaztetan, gaurko gaztiak baiño askoz be gehixago jolasten genduan kalian eta gure jolasen artian joku asko egitten genduazten".

JOLASETAN.- Olgetan, txantxetan. "Egun guztian jolasetan, umien moduan". Sexu hartuemonen eufemismoa. "Egon ziran jolasetan bedartzan iñok ikusiko ez balittu letz".

JOLASIAN EGIN.- Olgetan ibili. "Gure umetan edozein leku zan ona jolasian egitteko".

eskutitzak

EIBARKO UDALAK EUSKARAREN ERABILERA ARAUTUKO DITUEN ORDENANTZAK BEHAR DITUELA USTE DUGU

Eibarko hainbat eragilek udalak euskararen erabilera arautu behar duela uste dute. Horregatik, Euskararen Egunean, abenduaren 3an, udalak adierazpen baten bitartez behar horrekin bat egiten duela eta ordenantzak onartzeko prozesuari ekiteko konpromisoa hartzen duela iragartzeko eskatu diogu. Hau da sinatu dugun testua:

Hamaika dira euskaraz bizitzeko Eibarren azkeneko hamarkadotan ezagutu ditugun ekintzak. Herri eragileek bultzatutakoak izan dira batzuk, eta Eibarko udalak antolatutakoak beste batzuk: euskararen erabilera sustatzeko ekimenak, normalizazio planak...

Baina urratsak ematen gabiltzan arren, azkeneko azterketa soziolinguistikoaren emaitzek oraindik bide luzea egiteko dugula adierazten dute. Eta euskaldun kopurua zein euskara erabiltzeko aukerak handitu ezean, euskararen erabilera gora egingo ez duela da azterketaren ondorio nagusia.

Eibarren euskaraz (nonahi) bizi nahi badugu prozesu hori eragingo dituen erabakiak hartu behar ditugu. Prozesu bizia behar dugu, euskararen normalizazioan orain ematen ez ditugun pausoak epe luzera atzera-pausoak izango direlako. Bide hori egiteko konpromisoa hartu behar dugu herritar eta eragileok.

Udalak euskaraz bizitzeko nahiarekin bat egin, eta

prozesua bultzatu eta azkartzeko neurriak hartu behar ditu nahitaez. Horretarako plana badauka Eibarko udalak (EBPN), baina emandako pausoak babesteko eta erabakiak gauzatzeko arautegirik ez, eta ondorioz, betebeharrak ere ez.

Gabestia horren jabe egin, eta euskararen erabilera arautzeko ordenantzen beharra dagoela uste dugu testu honen sinatzaileok, Eibarren euskaraz bizitzeko prozesua azkartu dadin.

Euskararen erabilera arautzea normalizazioa biktortzeko da proposamenaren helburu nagusia. Herrian euskaraz bizitzeko, herritarrongan gertuen dugun administrazioa eredu eta eragile izan behar dela uste dugulako. Horregatik, Eibarko udalak euskararen erabilera arautuko dituen ordenantzak onartzea ezinbestekoa dela deritzogu..

IGONE LAMARAIN eta

AEK EUSKALTEGIA, ARRATE KULTUR ELKARTEA, BADINHARDUGU, EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ, HANKAMOTYAK BERTSO ESKOLA, ETA KITTO EUSKARA ELKARTEA, EIBARKO KLUB DEPORTIBOA, UDAL EUSKALTEGIKO IRANASLE GUZTIAK, AMAÑAKO IKASTETXEA, ARRATEKO ANDRAMARI HERRI IKASTETXEA, ALDATZE IKASTETXEA, MOGEL IKASTOLA, MOGEL IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA, URKIZU ESKOLAKO GURASO ELKARTEA, EIBARKO IGNACIO ZULOAGA INSTITUTUKO ZUZENDARITZA TALDEA, SAN ANDRES ESKOLA, IES UNI EIBAR-ERMUA BHI, AMAÑAKO HAUR ESKOLA, EIBAR.ORG



Euskara Elkarteak

ARGITARRAZILEA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONORAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Mainer Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Mainer Aranberri.

PUBLIZITATERA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kito!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

Hartu-emonetarako plataformia sortu nahixan

Eibartarren hartu-emonetarako plataformia eratu nahi dabe, dirua erabili barik produktu, zerbitzu eta ibilgailluen erabileraren inguruko alkartrukeak egiteko. Hala azaldu eben astelehenian M^a Jose Telleria Garapen Ekonomikoa, Berrikuntza eta Enplegu zinegotziak eta Shareak enpresako Izei de Velascok. Telleriaren berbetan, "gaur egun dagan situaziñuarekin, ikasketak dituen askok ezin dabe ikasitakua praktikan ipiñi, adibidez atzerriko hizkuntzen arloan, baiña plataformia sortzeko in-

teres nahikua izanez gero, arlo askotan hamaika aukera zabaldu leikez. Horregaitik, lehenik eta behin jendiak interesa dakan ala ez ikusi nahi dogu eta Gabonak bittartian 70 bat lagun batzia lortzen badogu interneten plataformia sortuko genduke".

Shareak konsumo kolaboratiborako alkarteko Izei de Velascok diñuanez, "produktuak saldu edo alokatzeko, zerbitzuak eskindu edo jasotzeko eta automobililla partekatze eibartarren plataformia modukua sortu nahi dogu, horrek



M^a Jose Telleria zinegotzixa eta Izei de Velasco, Shareak enpresakua

guztiak errazteko. Ez da dirurik erabiliko, euruaren pareko beste txanponen bat baiño eta txanpon hori erosteko modurik ez da izango". Plataformako kide modura izen-emoteko edo informaziño gehixago jasotzeko, eguazteneko Portalean egongo dira Share-

ak-eko ordezkariak, 4. pisan, goizez 10.00etatik 13.00ra eta arratsaldez 17.00etatik 20.00etara. Jendia bertara juateko animau nahi dabe, "sarrittan norberak ez dau jakitten zer eskindu edo jaso leikian eta gu horretan laguntzeko prest gagoz".




Epaiketara agertu ez ziran gaztiak atxilotzeko agindua

2007xan Segi ilegalizau ebenian A-8 autobidida moztu eben bost gaztien epaiketa bertan behera laga eben aurreko asteko eguaztenian, Donostian epaitu biharreko bost gazteetatik hiru, Naroa Ariznabarreta, Ainara Ladron eta Aritz Azkona agertu ez zirako. Ordu erdi errepidia moztigaittik 30 hillebeteko kartzela zigorra eskatu dau fiskalak. Hiru gaztiak desobediencia zibillaren bidiari jarraitu detse eta horregaittik ez ziran epaitegira juan. Hori ikusitta, epailliak hirurak atxilotzeko agindua emon eban egunian bertan. Gauzak holan, aurreko asteko eguaztenian gaztieri alkartasuna adierazteko agerraldixa egin eben Untzagan eta, bertan azaldu ebenez, "atxiloketa gauzatzeko hillebete biko epia dago eta edozein momentutan" juan leikez euren billa. Agurtu aurretik, gaztiak atxilotzen dituen egunerako mobilizaziñuak iragarri zittuen.

IK4-Tekniker, HINMICO proiektuaren buru

IK4-Tekniker materixal eta funziño anitzetan erabiltzeko mikro-osagaixak eskala handixan ekoizteko teknologia garatu eta integratzeko HINMICO Europako proiektuaren buruan dago. 5'5 millioi euroko aurrekontua dakan proiektuan, Eibarko zentruarekin batera, beste 15 bazkidek, zazpi herrialdetako ikerketa zentruak, unibersidiak eta enpresak dihardue parte hartzen. Proiektuaren bittartez lortu nahi dituen mikro-osagaixekin industriak hiru arlotan dakan eskarixari erantzun nahi detse: mugikortasungarriuan, erresistentzia aerodinamiakua murrizteko eta, beraz, erregai gixtiago konsumitzeko osagaixa sortuko dabe; elektronikan, ahalmen haundiko eta irismen laburreko mugikorren sariendako mikro-uhin pasibodun osagaixa egingo da; eta biomedikuntzan, sendakuntza azkarragua izateko materixal anitzez egindako inplantiak eta hagiñetarako bracket polimeriko indartuak egingo ditte.



1953an jaixotakuen esker ona

Aurten 60 urte bete dittuela ospatzeko jaixa egiñ eben urrixaren 19xan erretratuan ikusten dittuzuenak eta, eguna edarto pasau eta gero, "eskindutako laguntasuna dala-eta"



euren esker ona azalzteko idatzi deskue aldirakarira. Horrekin batera, eskerrak emon nahi detsez Unzaga Plaza hotelekueri, Koskor, Ongi Etorri eta Kultu tabernari eta Gazte Gogor alkartekueri, "egindako harreria dala-eta".

Eibarko 22 odol-emotaileri omenaldixa

Debagoiena eta Debabarreneko Odol Emotailiak urteko batzarra egiñ eben urriko azken asteburuan eta, betiko lez, batzarraren aitzakixarekin omenaldixa egin zetsen urtietan odola emon daben boluntarixueri. Untzaga Plaza hotelian danak alkarrekin bazkaldu aurretik, 25 eta 50 bider odola emon dabeneri, herrika antolauta, diplomia eta oroigarria banatu zetsazen Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko ordezkariak. 25 aldiz odola emotiagaittik omendutako eibartarrak (22 guztira) Aitor Agirre, Andres Bereziartua, Jose Antonio Blanco, Enrike Zialzeta, Jose Manuel Corrales, Nerea Elizondo, M^a Izaskun Iriondo, J. Ramon Moya, Carlos Piñeiro, Juan Pablo San



Roman eta Lucia Simon izan ziran eta 50 aldiz odola ematiagaittik, barriz, Jose Antonio Alberdi, J. Miguel Benito, Iñaki Kruzelaegi, Ramon de los Santos, Alberto Etxebarria, Juan Higuera, Clemente Hurtado, Oscar Lasa, Angel Motrel, Jorge Perez eta Luis Mari Saez omendu zittuen.

Gaztaiñen inguruko jaixak



AEK-kuak iaz Gaztaiñerre ospatzen.

As Burgas Galiziako Etxiak asteburuan ospatuko dau "festa do magosto" dalakua, Urkizuko parkian gaztaiñak, Ribeiro ardaa eta txorizua eskinduta. Urtero lez zapatu arratsaldian eta domeka goizian ospatuko daben jaixa girotzen Os Galaicos gaitajoliak jardungo dabe. Eta astelehenian Gaztaiñerre ospatuko dabe AEK euskaltegiak eta eurekin bat egittera animatzen diranak. Euskaltegi parian dagan Paloma tabernan alkartuko dira 19.00etan eta handik Ipurua aldera juango dirala aurreratu dabe: "Bertatik trikitilariarekin batera kalejiria hasiko dogu. Kantuan egin, pintxuak eta gaztaiñak dastatu eta umore onian alkarrekin egunari koloria emon, hori da plana".

autuan

1983-AN JAIXOTAKUAK

Urte horretan jaixotako eibartarrendako bazkarixa antolatu dabe abenduaren 14rako. Iruki sagardotegixan egingo dan bazkarixa jua nahi dabenak 30 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko 2095.5035.00.9113141512 kontu korronte zenbakixan, izen-abizenak azalduta.

MODA-DESFILIA

Gaur 17.30xetan moda-desfilia egingo dabe Untzagako jubilaru etxeak, El Corte Inglesak lagatako arropak pasarela gaiñian erakusteko. Bestalde, gaur 18.00etan "Joven El-Joven Ella" I. Modelo Lehiaketarako kasting-a egingo dabe El Corte Inglesian (2. solairuan, Gazte Modan).

BENICOBAREN ZOZKETIA

Benicobak Gipuzkoa Basket saskibaloitaldia ikustera juateko sarrerak bezueren artian banatzeko urriak 25ian egindako zozketan, irabazliak Cristina Ojanguren, Hilario Lamas eta Nieves Marin izan ziran. Gaur beste zozketa bat egingo dabe, sarrera gehixago oparitzeko.

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

ESPERIENTZIAK
EMATEN DUEN KONFIANTZA

30 urte
Eibarko
bizilagun-
erkeidegoekin
konprometitua

Zerbitzu
Gestioa
Administrazioa

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

EUKI
zerbitzu inmobiliarioak

www.euki.com **Tel: 943 200 358**

asteko
134.000
datua

euro jasoko dittu udalak Diputazioetik, inbersifuetan laguntzeko; Bilduk horrekin Sakunen baratzak egittia proposatzen dau. 2013an 1'2 millioi emon detsaz Diputazioak Eibarri: 900.000 Amaña/Urki igogailluendako, 100.000 mugikortasun planerako eta 200.000 euro Eibar-Maltzaga bidegorrirako.



Merkatu plazako otarraren irabazlea

Merkatu plazako dendarixak bezeruen artian hiru zozketa egin zittuen urrixan eta bakotxeko irabazliak Debako Kresala hotelian lagun birendako egonaldi bana jaso eban sari modura. Eta kanpaiña agurtzeko, urrixaren 26xan zozketa berezixa egiñ eben merkatu plazako dendetako produktuekin betetako otarra oparitzeko eta irabazlia argazkixan dagan Ana Ormaetxea izan zan. Zorionak!

Lehelengo maridajia Krabeliñen

Arrateko Krabelin jatetxiak hamargarrenez antolatutako maridaje jardunaldixetako lehena gaur gabian egingo da, Chivite ardanegiko ardauekin. Menua ehizak eta Chivite ardauekin osatuko dabe. Ardauekin gaitzeko azalpenak Marta Lopez enologuak emango dittu eta ehizarekin osatutako menua Jon Odriozola sukaldariak prestatuko dau. Datorren asteko barixakuan antzerako programari jarraituko detse, Vintae taldeko Aroa ardanegixarekin eta hilla-ren 22rako, barriz, Adegas: Ponte da Boga ardanegixa aukeratu dabe. Azken afarixa hilla-

ren 29xan egingo da eta, gaitzera, bestiekin konparatu berezixa izango da, Mateo Guilabert kazetari eibartarrari omenaldixa egingo detse eta. Bestalde, San Andres bezperako afarirako ez dabe ardanegirik gonbidatu, baiña maridajietako ardauek eskinduko dittue eta beste afarixak baiño zeozer merkiagua izango da. Izena emoteko 943202727 telefono zenbakira deittu edo contacto@hotelkrabelin.com helbidera idatzi. Azken urtiotan egindako lez, afaltzera doiazenendako autobusa ipiñiko dabe Arratera igo eta jaisteko.

Gure Esku Dago ekimena presentau dabe



Gure Esku Dago herri ekimena presentau eben eguztenian Portalean. Erabagitzeko esku-bidia eta konponbidia gure esku daguala aldarrikatzeko abiarazi daben ekimenak, bestiak beste, 2014ko ekaiñaren 8xan Durango eta Iruñea giza-kate erraldoi batekin batu nahi dittu. Ekimenerakin interesa dakenak horren gaitzera informaziño zabala topauko dabe interneten, gureeskudago.net helbidian.



Itunpeko irakaskuntzako bihariñak protestan

La Salle eta Aldatze ikastetxietako bihariñak euren eskubidien aldeko alkarretaratzia egiñ eben aurreko astian Untzagan. Ekaiñaz geroztik Euskal Autonomia Erki-deguan itunpeko irakaskuntzan (konzer-


tauan) diharduen bihariñak konbenixu barik dagoz, euren lan baldintza eta eskubidien kaltetan eta hori salatzeko mobilizaziño eta lanuztiak egin dittue azken ziotan.

AZKARATE TELLERIA'tar FERNANDO

3. urteurrena: 2010-XI-7

"Beti izango zara gure bihotzetan"

ETXEKOAK



Erdialdeko erdilaria aukeratuko du aste honetan Eibar FT-k

Aurreko astean eskumako erdilaria aukeratu eta gero, Eibar FT-ko bazkideek eta akziodunek erdialdeko erdilaria hautatuko dute oraingoan. Horko plantxa ez da nolana horkoa eta sei dira hautagaiak: J.A. Gisasola "Kaiku", Patxi Aranegi, Oscar Artetxe, Gaizka Garitano, Moises Hurtado eta Xabi Alonso. Betiko moduan, botoa emateko 1940-2015@sdeibar.com helbidera bidali beharko da mezua.

Hilabete honetan, bestalde, ohiko batzar nagusia egingo du klubak, zehazki hilaren 27an 19.30etan (lehen deialdian) edo hurrengo egunean, 28an ordu berean (2. deialdian). Portalean egingo den bilera horretan gai zerrenda honakoa izango da: sozietatearen egoerari buruzko txostena, aurreko ekitaldi eko-

nomikoaren eta 2013-14rako aurrekontuaren onarpena eta ahalmenen eskuordetza.



Artetxe



Aranegi



Hiru buruzburuko domekan Astelenan

Sei pilotarirekin osatuko du Aspek domeka arratsaldeko jaialdiaren karteldegia, binakako partidurik ez baita izango Astelena katedralean. Hiru partiduak, jakina, lau eta erdiaren barruko txapelketakoak izango dira: hasteko eta amaitzeko, bigarren mailakoen artekoak jokatuko dira (hor Victorrek Jaka izango du aurkari 17.00etan eta Olazabalek Lemuno jaialdiari agur esateko). Erdian partidu nagusia jokatuko da, lehen mailakoa, Oinatz Bengoetxea eta Idoateren artekoa. Jaialdia ETB-1ek eskainiko du zuzenean.

Saskibaloiko talde biak Ipuruan izango dira bihar



Ruibalek bost partidu behar izan ditu Gipuzkoako 1. mailako aurreneko partidua irabazteko, Hernaniri 78-54 nagusitu zitzaizen-eta; azken asteburuan, baina, Bosteko Irauli liderrak 95-51 astindu zuen Eibarko taldea. Oraingoan DKS hartuko dute eibartarrek Ipuruan (bihar, 16.30etan). Euren atzetik jokatuko dute Katu-Kalekoek, 3. mailako norgehiagokan: azken horien debuta izango da Ipuruan, Donibasket hartuta (18.00etan). Aurrez Legazpin jokatutako partiduan, irudi txarra eman zuten eibartarrek bertako Andraitzen aurkako neurketan (63-42 galdu zuten).



Gabonetako OTARRA

SALMENTA LEKUAK

- Arriaundi
- Bolintxo
- Depor taberna
- Ego Gain taberna
- El Corte Ingles
- ...eta kitto!
- Echetto - Urkizu
- Guridi taberna
- Isasi okindegia
- Izadi loradenda
- Kultu taberna
- La Golosina
- Maria Ospital
- Mugika harategia
- Ogi Berri - Urkizu
- Otegi harategia
- Udal Euskaltegia
- Untzaga prentsa
- Valenciaga
- Zubi-Gain taberna

OTARREKO PRODUKTUAK

- 40"ko 'OKI' telebista
- 'Micsa' ezkur-urdaiazpikoa
- Solomo trufatua
- 'Don Bernardo Oro' gaztaia
- Salamankako ezkur-txorizoa
- Salamankako ezkur-saltxitxoia
- Ahate 'Delicass' foie-a
- 'Martika' Confit ahate-izterra
- 'Sierra Monesterio' ezkur-solomo zorroak
- Ahate-jamioia
- 'Julian Martin' askotariko iberikoa
- 'Vasco Navarra' ardi gazta
- 'Sierra Monesterio' ezkur-jamioi zorroak
- Micuit 'Rougie' Gourmet
- 'Das Cafeteras' gozokiak
- 185 gramoko Chataka lata
- Pikillo piper saltsa. 278 ml
- 'El Barco' txokolataia
- 'El Barco' txokolata zuria
- Madari osoa ardotan
- '1880' txokolata-almendra turroia
- 'La Higuera' piku bonboia
- 'Gorrotxategi' teilak
- 'C. Gourmet' turroi gogorra
- 'C. Gourmet' turroi biguna
- 'C. Gourmet' trufa-turroia
- 'Soles de Gredos' hojaldre txokak
- 'Gyulian' itsas fruituak
- 'Cascajares' esne-bildots hanka
- Gin Tonic-erako espezia estutzea
- Champagne 'Bruno Paillard'
- Champagne 'Rosse Ruinart'
- Champagne 'Moet Chandon' estutzea
- Eskozialako 'Chivas Regal' whisky-a
- 'Matusalem' rona. 23 botila.
- 'Plymouth' Ginebra
- 'Qtonic' 4 tonikako Paka
- 'Conde Osborne' Coignac-a
- 'Level' Vodka
- 'Marques de Riscal' 150 Aniversario ardo beltza
- 'Albariño Martin Codax' ardo zuria
- 'Julian Chivite 150 aniversario' ardo gorria
- 'Gourmet Blancos D. O.' zainzuriak
- 'D. O. Gourmet Frasco' piperrak
- 'D. O. Catedral Frasco' alkaxorak
- 'Thes D' origin Le Palais' estutzea
- Jamaicako kafea
- 'Elfos' trufa zuria olioa
- 'Elfos' trufa beltz olioa
- 'Gourmandises' kokaak
- 'L' Himalayen' gatz larrosa
- 2 'Ibarin' confit
- 2 'Lafitte' confit

Toribio Etxebarriako El Corte Ingles parean
BARIXAKUAN 19.00etatik 21.00etara
ZAPATUAN 19.30etatik 21.00etara



Bosgarren mundu-marka Bihurrirentzat

Ernesto Ezpeleta aizkolariak ezustean harrapatu zuen zale asko **zapatuan** Bilbon emandako erakustaldian eta gehienek espero zuten baino lehenago amaitu zuen lana. Ordu bi, 9 minutu eta 35 segundo behar izan zituen, esku bakarrarekin, 3 metro eta 40 zentimetroko perimetroa zuen enborra moztzen, *“horrelako probetan inoiz baino erosoago sentitu naizen proban”*. Bihurrik 25 aizkora eraman zituen La Casilla pabilioira, *“guztiak erabili ez banituen ere pago enborra mozteko”*. Oraingoan bere ohiko pisutik bost kilo gutxiagorekin aurkeztu zen probara eta, aurretik hain ziur ez bazen ere, mesedegarizat jotzen du hartutako neurria: *“85 kiloren bueltan nabil eta ez dut indarrik galdu; kontrara, eritmoari hobeto eusteko balio izan dit horrek”*.



Azaroaren 2koaren aurretik munduko beste lau marka ditu Eibarko aizkolariak, euretatik beste hiru esku bakarrarekin: 2'52 perimetrokoa 22 minutu eta 21 segundotan moztu zuen; 3 metrokoa ordubete, 38 minutu eta 39 segundotan (3.163 aizkorakada); eta 3'10ekoa ordubete, 39 minutu eta eta 45 segundotan (3.850 aizkorakada). Esku biek lan mardulagoa hartu zuen behin eta, 4.797 aizkorakada eman ondoren, 5 metroko perimetroko enborra moztu zuen hiru ordu, 7 minutu eta 48 segundotan, munduko marka eginez.



Aitor Hernandez Belgikara bere mugen bila

Ermuko txirindularia Hasselt eta Gavereko probetan izango da hilaren 16an eta 17an. Denboraldi bikaina dihardu egiten Aitor Hernandezek, jokaturako zazpi lasterketak irabazi ditu-eta, azken asteburuko biak barne. Laudioko eta Muskizeko ziklo-kros lasterketetan, gainera, Specialized taldeko txirindulariak kanpoan prestatzen ibili den Egoitz Murgoitio gainditu du. Asteburu honetan Elorrioren izango du hitzordua.



Ipuruako gimnastak Euskadiko azpitxapeldunak

Bermeon jokaturako gimnasia **erritmikako Euskadiko talde-kako txapelketan**, Ipuruatik joandako talde biek (1. mailakoa eta infantil oinarrizkoak) bigarren postuan amaitu zuten. Lehen mailako taldeari Leioako Sakonetak hartu zion aurre eta gazteenari Tolosak. Postu

bera eskuratu zuten Ipuruako talde biek Reyno de Navarra Sarian ere eta bihar eta etzi, bestalde, Euskalgym-ean hartuko dute parte: hor izango dira munduko gimnasta onenak eta baita azken mundialetan urrezko domina irabazi duen Espainiako selekzioa.



Neurketa borrokatua izan zen eibartarren eta iruñearren artekoa.

Eibar Rugby atzo talde guztiak aurkeztu zituen

Atzo arratsaldean ziren aurkeztekoak Untzagan Eibar Rugby Taldearen ekipo **guztiak**, Untzagan egin behar zen ekitaldian. Eurekin batera, taldeak arlo teknikoak egin dituen aldaketen protagonista ere izango ziren: Jokin Garzia egitura osoaren arduraduna, Ibon Ganzarain Hernanitik datorren senior taldearen entrenatzaile berria eta Gorka Nuñez beheko taldeen heziketa fisikoaren arduratuko dena.

Nesken taldeak, bestalde, 7-43 galdu zuen ligako lehen jardunaldian, Iruñeko La Unica taldearen aurka Unben. Markagailuak adierazten duenaren aurka, lehia borrokatua eta estua izan zen eta atsedanaldian 7-15ekoa erakusten zuen markagailuak, Iratxe Fernandezentzako entsegu bati eta Amair Mayok erdietsitako eraldaketari esker. Domekan Durango-Urbealdearen kontra jokatu dute eibartarrek.

I. Asier Cuevas arrakastatsua

Zapatu arratsaldean 7³⁵ kilometroko distantzian jokaturako I. Asier Cuevas herri-lasterketan 251 korrikalari helmugaratu ziren, eurretatik 132 eibartar. Emakumezkoen parte-hartzea guztien %20koa izan zen, 49 korrikalarirekin. Joseba Larzabal irundarra izan zen irabazlea (22 minutu eta 36 segundo), Ander Agirre bergararraren eta Gaizka Romero arrasatearraren aurretik. Emakumezkoetan Ainhoa Sanz urretxuarrak aurrea hartu zion Aitziber Urkiola eibartarrari segundo batengatik eta Estela Biain oñatiarra hirugarrena izan zen. Senior mailatik aparte, honakoek osatu zituzten bestelako podiumak: junior mutiletan eibartarrek osatu zuten podiuma, Txomin Osoro, Jokin Bergara eta Ander Gisasolarekin; junior nesketan Nerea



Ziaran eta Maialen Zamakola eibartarrak izan ziren onenak Leire Intxaustegi leioatarraren aurretik; beterano gizonetakoetan Juan Ramon Otegi gazteluarrak aurrea hartu zion Jose Antonio Cirujano azpeitiarraren eta Jose Carlos Garcia bergararraren aurretik; eta beterano emakumezkoetan Lurdes Oiartzabal lezoarrek aurrea hartu zion Olga Herrero eibartarrari eta Maria Jesus Castro debarrari.

Eibar Eskubaloia sendo lidergoan

Ipuruan jokaturako azken jardunaldian, gainera, maisu jokatu zuen eta 29-20 gainditu zuen Stadium Casablanca. Garaipen horrekin, jokaturako zazpi jardunaldietan irabazle izateaz gain, hiru puntuko alde du Eibarko taldeak Arrasatearekiko eta bost puntu kentzen dizkie Casablanca eta Trapagarani. Garrantzi handiko bi neurketen aurrean dira orain So-

mos Eibarkoak: bihar Elgoibarren Alcorta Forging Group izango dute zain eta hurrengo aseturuan bigarren dagoen Arrasate.

Harrobiko taldeek ere nagusi izan ziren azken asteburuan: jubenilek 30-25 irabazi zioten Ordiziari, lehen zati ikusgarriaren ondoren, eta kadeteek 29-10 Bergarari -A taldearen kasuan eta 38-8 Arrasateri -B taldekoek-.

berriak

BEHOBIA-DONOSTIA

Domekan Behobia-Donostia maratoi erdiaren 49. edizioa jokatu da eta han izango dira gure herriko hainbat atleta. Irteera 10.00etan emango da (patinatzaileak 09.40etan eta gurpildunak 09.30etan). Lasterketa exigentea da eta tartean Gaintzurizketako (8. km-a) eta Mirakruzeko (17. km-a) gainak gainditu beharko dituzte parte-hartzaileak.

NEGUKO ORDUTEGIA

Azaroaren 1etik 2014ko martxoaren 30era arte Ipuru kiroldagiko instalazioak domeka eta jaiegunetan zabalik izango dira 09.00etatik 13.00era eta 16.00etatik 20.00etara.

PILOTA

Gaur bi partidu jokatu dira Astelenan, 17.30etan hasiko den jaialdian. Deporreko lau alebin onenek neurtuko dituzte indarrak lehenengo eta, jarraian, Arribillagak eta Unamunzagak Tolosako Aurrera-Saiazearen aurka lehiatuko dute.

GIDA
PRESTATZEN
DIHARDUGU...

Agertuko zara, ezta?

eibar
GIDA
2014

DEITU...

943 20 67 76

943 20 09 18



Jorge Imaz Bolinaga

Komunitateen Administrazioa

Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.

Tlf. 943 53 03 03

imazjorge@hotmail.com

Eibarko Udalak urriaren 23ko plenuan 2014rako zergak eta tasak batzuetan beste %3 igotzia onartu eban, PSE eta PP alderdixen aldeko botueri esker. Gobernu taldiaren arabera, "zergena, igoeria baiño gehixago Kontsumorako Prezio Indizearen (KPI) arabera aktualizaziñua izango da", baiña debatiak luze jo eban eta EAJ eta EH Bilduk igoeraren kontrako euren jarrera arrazoitzeko emon zittuen azalpenak be ez ziran gitxi izan. Inportantienak laburbildu dittugu.

Tasak eta zergak %3 IGOKO DIRA

Datorren urterako tasen inguruko debatan Eibarko EH Bilduk esandakuen arabera, "udal gobernuak tasa eta zerga guztieri KPIaren arabera igoeria aplikatzia proposatzen dau, baiña indize hori noizkia eta nungoa dan arabera gauzak asko alda-

tzen dira. Eibarko udalian betidanik Espaiñiako abenduko KPI-ari begiratu detse eta, horri begiratu, KPI-a %2'9 da, baiña gure proposamena oiñarri modura hego Euskal Herriko KPI-a hartzia da".

Erabili bariko etxien IBIXaren errekaruaren gaiñian, "ur-



tian bakarrik 15 egunetan erabiltzen dan etxeri errekarorik ez kobratzia ezin leikiala uler-tu" esan eban eta, horrekin batera, beste etxe guztieri kobratu biharreko IBIXa izoztia proposatu eban, "arlotan publikuan zein pribatuan soldadak izoztu edo jaitsi egin dirala ikusitta, oiñarriko eskubidia dalako".

Motordun ibilgailuei aplikatzen jakuen zergen gaiñian jardutian, barriz, "udal gobernuak proposatzen dabenarekin, hau da, KPI-aren arabera igoeria aplikatziarekin ados gagoz, baiña horrekin batera, gure propo-

samena zaldi fiskalak igotzen doiazan neurrixan, igoeria be haunditzen juatia litzake".

Bildukuen proposamen zerrrendak jasotako beste batzuk zaborren tasa izoztia, bosgarren kontenedoria erabiltzen dabereri oiñ arteko tasa kobratzen segitzia eta erabiltzen ez dabereri %20 gehixago kobratzia eta autokonpost erabiltzaillieri %40ko hobarixa eskintzia dira. Interbenziñua amaittu aurretik, Eibarko alkartieri laguntzeko neurrixak eskatziarekin batera, musika, zeramika eta pintura udal eskoletako tasak izoztia

IGOKO DITTUENETAKO BATZUK

• **Zaborrak:** Mankomunadiak eskintzen daben zaborrak biltzeko zerbitzuari %2'9ko igoeria aplikauko detse. Igoeria indarrian sartzian, erabili bako etxe eta lokalak hiru hillian behiñ 39'55 euro pagauko dittue. Bosgarren kontenedoria (marroia) erabiltzen daben etxietak, bestalde, piskat gitxiago, 33'21 euro ordainduko dittue. Eta ostalarixak (tabernak, jatetxia, kafeterixak...) hiruhilleko 163'39 euro pagauko dittue.

• **IBIXa:** Ondasun Higieziñen gaiñeko zergiarri %2'9ko igoeria ezarriko detse.


• **Garabixa:** Kalian daguazan motorrak eta antzerako ibilgailuak garabixak eruan ezker, 10 euro pagau biharko dittu jabiak. Beste ibilgailuen (2.500 kilo arteko automobillak-eta) kasuan, 77 euro pagauko biharko dira.

• **Etzerik-etzerako laguntasuna:** Zerbitzua erabiltzen dabenak ordu bakotzeko 22'90 euro ordainduko dittu lanegunetan eta 26'94 euro jaiegunetan.

• **Nitxuak:** Kanposantuan nitxua hamar urterako konzesiñuan hartzia 271'66 euro kobrauko dabe.

• **Kiroldegixa:** Kirol Patronatuak kiroldegixetako instalaziñuak erabiltzeko famelixeri (21 urtera arteko seme-alabak barne) eskintzen detsen urte osorako bonua 228'10 euro kobrauko dabe 2014an.

• **Musika Eskolia:** Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan musika-lengoaia ikasteko matrikulia 416'31 euro kobrauko detse Eibarren errolatuta daguazeneri. Instrumenturen bat jotzen ikasi nahi dabenak 742'70 euro pagau biharko dittue eta instrumentu bi izan ezker, 1.100 euroko matrikulia ordaindu biharko dabe.



Musika Eskolako matrikulia 416 euro kobrauko dabe datorren urtian. Instrumento bat ikasteko, barriz, 742 euro pagau biharko dira.

eta zerbitzu publikuen tasak plenuan presentau eben taulari jarraituta modu progresibuan aplikatzia proposatu eben.

EAJ tasak izoztiaren alde

EAJ alderdikak, tasen inguruko plenuaren aurretik prentsaurrekuan esandakuari jarraituta, "gaur egunian bizi dogun egoera ekonomiko eta soziala zelakua dan ikusitta, udal tasak eta zergak ixa %3 igotzia bidegabekua dala pentsatzen dogu. Heritarren soldatak izoztuta egonda, zergetan igoeria ezartziak ez daka logikarik". Gaiñera, tasak izozteko proposamena "beste arrazoi objetibo batzuk" indartzen dabela gaiñeratu eben jeltzaliak: "Kontuan izan bihar dogu korporaziñuaren aurrekontuaren %35 baiño gehiago Madrilgo PP-ren gobernuak izoztu dittuan soldatak osatzen dabela. Gaiñera, udalak derri-

Kritika gehixen jaso daben igoeria Kirol Patronatuari lotutakua izan zan, iaz %10-23 igo ebelako

ERABILLI BARIKO ETXIEN IBI-XA

URRIKO AZKEN PLENUAN ONARTU AURRETIK, prentsaurrekuan azaldu zittuen datorren urtetik aurrera hutsik edo erabilli barik daguzen etxien jabieri ondasun higieziñen zerga (IBI dalaakua) kobratzeko erabilliko dittuen irizpideak. Arcadio Benitez sozialisten bozeramailliak eta Jose Luis Valles Hazienda batzordeko presidentiak azaldutakuari jarraituta, hasiera batian zergan errekarua aplikatuko zan ala ez erabagitzeko etxian batenbat errolatuta eguan ala ez begiratzeko asmua zeken, baiña herritarrak horren barri izan ebenian udalian presentau zittuen 400 bat alegaziñuak aztertu eta gero, "oso kasuistika zabala" daguala ikusi eta onartu dabe eta, horregaittik, aurreko hillian plenora eruandako ordenanza barrixa egitteko alderdi politiko guztietako ordezkariak alkarrekin biharrian jardun dabe.

Agerraldixan argi laga eben ordenanzaren asmua ez dala dirua batzia, "erabilli barik daguzen etxebizitzak merkaturatzia baiño". Asmo horri jarraituta, eta alegaziñuetan ikusi zittuen kasuak aztertuta, dozena bat salbuespen gehitu detsez hasierako ordenanza-proposamenari. Errekargorik ez kobratzeko salbuespen-zerrendan, bestiak beste, etxebizitza alokagai edo salgai egotia, jabia berriki hill izana, jabia zaharren egoitza batera bizitzera jua danetik denpora gitxi pasau izana, behin-behiñeko arrazoiengaittik herritik kanpora bizitzera juatia eta "logikuak diran beste egoera batzuk" dagoz.



Erabilli barik daguzen etxieri errekarua aplikatzeko ordenanzak kontuan hartu dittu heritarren 400 alegaziñuak.

gorrez bete biharko dabe horren gaiñian agindu dabena, beraz 2014ko udal aurrekontuetan lehen atalak jasotzen daben gastuen partidia ez dabe igoko".

Zaborren zergari aplikauko detsen igoerari "larregizkua"

erizten detse jeltzaliak eta gauza bera pentsatzen dabe kirol instalaziñuen zergaren gaiñian: "2013an %10eko igoeria aplikau eben abonuetan eta %23kua beste zerbitzuetan, horregaittik ez dogu ondo ikusten horren jarraixan beste %3ko igoeria au-

rretik egindakueri gehitzia". Etxerik-etxerako laguntasun zerbitzueri eta San Andres zaharren egoitzari kobratzen jakozen zergak azkenaldixan igoera haundixak euki dabela gogora ekarria amaittu eben interbenziñua.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

"BIZIPOZA" lan berriarekin

**ZAPATURAKO SARRERA GUZTIAK
AGORTU BADIRA ERE**

AZKEN AUKERA DUZUE

**IKUSKIZUNAZ GOZATZEKO
BARIKAKUKO SAIOETAN**

e&m argazkidenda, El Tío Palancas eta Gozoki-n

(8'00 euro)

berriro ere Eibarren

azaroak 15

BARIKAKUA

17.30
19.30

azaroak 16

ZAPATUA

16.30
19.00





Rafael Herce eibartarrak egin du gaur antzeztuko den lanaren testua. Horrez gain, obraren produktorea da eta parte hartzen du bai argiztapen diseinuan bai eszenaren teknikan. Banarte Antzerki Taldeko presidentea, gainera, don Bonifacio Ormaetxeberria orain dela mende bateko Gernikako Santa Mariako parrokoaren azalean sartuko da gaur Coliseoan, 20.30etatik aurrera, ikusgai izango den "Guernica 1913" ikuskizunean.

RAFAEL HERCE (Banarte Antzerki Taldea)

"Antzezlaneaneko heroiak eibartarrak dira"

- Zer sentitzen du eibartar batek lan hau bere sorterrian aurkeztean?

Ilusioa eta erantzunkizuna, neurri berean. Familiakoen, lagunen eta ezagunen aurrean lan egiteak baduelako bere konplexutasuna.

- Orain arte Matienan eta Gernikan aurkeztu duzue lana. Zelan erantzun du jendeak?

Jende asko izan da bietan eta erantzuna ere bikaina izan da. Lanak engantxatu egiten du eta entretenitu. Ikusleak istorioa bizitzen du, aurrean duenarekin identifikatzeraino. Bietan zoriondu gintuzten.

- Eibartar batek non aurkituko du bere interesa piztuko duen hori?

Giza istorioa kontatzen da lanean, arazoak dituen eta horietatik irtezeko baloreei eta ideiei fidelak izatea erabakitzen duen familia batena: hori da kontatzen dugunaren alde unibertsala. Horrez gain, gizartea ulertzeko bi moduren arteko talka dugu eta ondoren ematen den bizirauteko borroka ere ageri da. Baita porrotean duintasunari eustea, ideien argitasuna eta guztien ongia lor-

tzeko gizabanakoaren sakrifizioaren beharra, horren kontzientzia izatea. Epikoa baita lau behargin han lagatzea euren lanpostuak beteko dituzten langile berriei ofizioa erakusteko: mundu guztiari gustatzen zaizkien eta engantxatzen duten balore unibertsalak.

Eta heroiak eibartarrak dira, gertukoak, gure familiakoak edo gure ezagunenak. Gainera, ez da fikzioa, benetan gertatutakoa baizik. Denok dakigu 1931ko apirilaren 14an errepublikako bandera igo zela Eibarren, baina gutxi dakite hori ez zela izan ekintza puntual eta isolatua, baizik eta bizitzeko eta mundua ikusteko modu baten gailurra, XIX. mendearen amaieratik eratzten joan zena eta gure herria "Hiri Guztiz Eredugarria" izatera eraman zuena. Eibartar oro harro sentituko da bere historiaren zati hori ezagutzerakoan.

- Mende bat geroago, eibartarrok zergatik ez dugu gertakizun hori ezagutzen?

Eibar ez da nabarmendu bere patrimonioa kontserbatzeagatik. Beti begiratu izan du gehiago aurrerantz atzerantz baino.

Ehun urtean gauza asko izan dira: krisiak, gerrak, diktadurak, errepresioa, aldaketa sozialak... Gerra zibilak eta diktadurak asko markatu gaituzte eta gertuko historia monopolizatu. Uste dut interesa egon daitekeela Eibarrek betidanik izan duen jarrera librepentsalaria, berdintasunezkoa eta unibertsala ezkutatzeke, adskripzio politiko jakin batzuetakoei lotutakoa, ezabatzeke.

- Zein helbururekin ekin diozue lan honi?

Jendeari erakutsi nahi diogu sasoi hartako txisperuak hain argi zutena: solidaritatea, duintasuna, denon onerako sakrifizioa... ez direla ez ameskeriak ez utopiak, baizik eta askorentzat euren bizitzetako ardatza. Gaur egun ere indarrean jarri deza-keguna. Erakutsi nahi dugu, teknologietan eta makinetan hainbat aurrerapen emanda ere, badirela aldatzen ez diren gauzak. Emakumearen rola ere ezin dugu ahaztu.

- Zelan irudikatzen dituzue orduko eibartarrak? Zeintzuk dira gaur egun indarrean jarraitzen dituzten baloreak?

Orduko eibartarrak progresistak ziren, be-

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: 943 201095 fax: 943 202564

rritasunari irekiak eta ikasteko eta hobetze-ko kezka zutenak. Edonora joaten zirenak, gauzak ikastera. Euren ohitura eta hizkuntzari eusten zioten, baina gizateriaren bilakaera globalarekin identifikatuta. Horrelakoak ziren Akilino Amuategi eta Marzelino Baskaran, Juan Pedro Unzeta eta Julian Etxeberria. Orduko baloreak goia jo zuten, gero krisian jausteko. Gaur egun, nire uste-tan, balore horietan oinarritutako gizarte-aren gainbehera dihardugu bizitzen.

- Zelako eragina izan zuten eibartar horiek gemikarren artean? Borroka galdu zuten?

Hiru hilabete bakarrik egon ziren txisperuak eta euren familiak Gernikan, baina tar-te horretan asko markatu zituzten gemikar-rak. Ohiturak, lan egiteko erak, progresoa eta dinamismoa laga zituzten fabrika eta negozioetan; harremana zabaldu zen gemikar-aren eta eibartarren artean, familiak osatuz... eta harreman horrek gaur ere irau-ten du. Grebara deitu zuteneko helburu materialak ez lortzea porrota bada, galdu egin zuten; baina beste aldeak ere ez zuen lortu bere helburua, hau da, fabrika pro-dukzioan jartzea Eibarko beharginekin. Txisperuen eskuzabaltasuna gemikarre-ko borrokaren zintzotasunean ikusten da, inor ez mintzeko egindako ahaleginean. Euren jarrerari duintasunez eta sakrifizioz eustean, "porrot" material hori garaipen es-piritual eta ideologikoa bihurtzen da. Ho-rron frogatzen da, ehun urte geroago eta Astrak bere ateak aspaldi itxi zituenean, haiek egin zutena berreskuratu dugula.



Banarte Antzerki Taldeak gaur 20.30etan "Guernica 1913" taularatuko du Coliseoan

Urriaren 19an Gernikan estreinatu zen antzez-lana benetako gertaeretan dago oinarrituta, asteleheneko aurkezpenean azaldu zuten moduan: *"1913an Eibarko 87 familia Gernikara joan ziren. Gerora Astra izango zen Esperanza y Unceta arma laburrak egin zituen enpresan zeuden eibartarrek 1913ko udazkenean Gernikan egin zuten greba da lanaren ardatza. Bertan klase borroka, kontzientzia, eibartarren izaera, emakumeen garrantzia eta beste hamaika kontu azaltzen ditugu".*

Txato Etxaniz Gernikazarra elkarteko kideak ikertu eta jasotako informazioari jarraituta idatzi du testua Rafa Herce-k. Antzez-lana **Sardo Irisarik** zuzendu du, eszenogra-fian **Jabier Obregonen** laguntzarekin eta prozesu osoan Txato Etxanizek aholkulari mo-duan jardun du. Eibarren, bestalde, **Jose Antonio Azpilikueta** artistak egindako komi-kia, eskuprograma modura banatuko dute. Sarrerak 5 euro balio du eta interneten Ku-txabanken eros daitezke eta, bestela, Coliseoko leihatilan bertan egongo dira salgai.

- Menu bereziak ospakizunetarako eta urtebetetze-merendoretarako
- Oilasko erre osoa, patata frijituekin (10 €)
- Eguneko menua (astelehenetik ostiralera)
- Plater konbinatuak / Razioak
- Kazuelitak

Restaurante La Jara

CAFESAITONA

www.cafesaitona.com

Saratsuegi, 5 APARKATZEKO arazorik gabe **943-257605**

Gazteak gure hizkuntza erabiltzeak duen garrantziaz sentsibilizatzeo eta euskaraz bizitzearen aldeko hautua indartzeko asmoz, bigarren urtez abiatu da "Ika Mizka. Eta hik, nola bizi dink euskara?" egitasmoa, Gaztezulo eta Gipuzkoako Foru Aldundiak EHU eta MUrekin lankidetzan antolatuta.



Nerea Aliasekin batera **IKA-MIZKAN** ibiliko dira gazteak

PROIEKTUAK HAINBAT ALORRETAKO AURPEGI EZAGUNAK ETA GAZTEAK MAHAI BATEN BUELTAN BILDUKO DITU, EUSKARAZ ETA EUSKARA BIZITZEKO MODUEZ BERBA EGIN ETA EZTABAIDATZEKO. Aurreko edizioan kirolariak, kazetariak, bertsolariak, zinemagileak, idazleak eta musikariak hartu zuten parte eta bigarren honetan ere hori da asmoa: "Euskaldunok gure hizkuntzari arnas emateko ahaleginean (edo ez) bizi ditugun gorabeherak mahaigaineratu eta jende gehiagorekin konpartitzeko aukera eta tartea eskaintzea".

Ekimeneko arduradunek azalduko jarraituta, "besteak beste, sukaldaritza, zinema, antzerkigintza, arkitektura, moda, kirola eta artearen mundutik datozen profesionalekin bideoak grabatu ditugu euskararen, euskaraz bizitzearen eta euskara bizitzeko moduen inguruko ideiekin". Asier Altuna, Aizpea Oihaneder, Alex Txikon, Aitziber Garmendia, Maider Yabar, Koldo Telleria edo Iraia Oiarzabalek esandako horiek izango dira, hain zuzen ere, gazteen solasaldiarentzat abiapuntua.

Aurten zirkuitu modukoa osatu dute eta

ibilbidean hiru geldione egingo dituzte: lehenengoa aurreko astean Ordizian egin zuten, Mondragon Unibertsitatearen Goierriko campusean eta bigarrena, berriz, datorren asteko egunean Eibarren egingo da, EHU-ren Industria Ingenieritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan. Nerea Aliasek aurkeztuta saio bi egingo dira, lehena 10.00etan hasita eta bigarrena, berriz, 11.30etatik aurrera. Aurreko astean Ordizian egindakoaren bidetik, saioetan hainbat alorretako aurpegi ezagunak eta EHUko gazteak bilduko dituzte mahaiaren bueltan, euskaraz eta euskara bizitzeko moduez berba egin eta eztabaidatzeko. Mahai bakoitzean bi aurpegi ezagun eta alde zuzeneko saioetan parte hartzeko izena eman duten bost gazte elkartuko dituzte eta bien bitartean mokadutxo ere emango zaie.

Ibilbideko azken geldionea abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, egingo dute Irunen, Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako campusean.

Proiektuaren izena, bestalde, ika-mika eta zizka-mizka kontzeptuen arteko nahasketatik sortutakoa dela argitu dute: "Euskal Herrian kontu garrantzitsuak ma-

haiaren inguruan eta jatekoaz lagunduta konpontzen ditugunez, oraingo honetan ere halaxe izan dadin nahi dugu. Horregatik, ekimen honen harira sareratuko ditugun bideoetan nahiz antolatuko ditugun saioetan mahaia eta pintxoak presente egongo dira".

Eta hori guztia helburu argi batekin: "Gazteak dira euskararen etorkizuna. Ezagutza bezain garrantzitsua erabilera da, eta ez bakarrik etxe, ikastetxe edo unibertsitate testuinguruan. Honek duen garrantziari buruzko sentsibilizazioa, ordea, errotuago dago belaunaldi helduen artean nerabezaro/gaztaroko zurrumbilo eroan bizi direnen artean baino. Azken horiengana ailegatzeko edozein mezu inperatibo baino eraginkorragoa da etxean entzuten duten musikariaren, gertutik jarraitzen duten kirolariaren, telebistan ikusten duten aurkezlearen edo irakurtzen duten idazlearen hitzak entzutea eta, horrekin jakitun, bidali nahi diegun mezua oso argia da: 'Ei, gazte! Miresten dituzun horiek, euskara maitatzetik harago, euskaraz bizi dira. Zuzeratik ez?'. Hortik abiatuta hausnarketara bultzatu nahi ditugu".

LAN ESKAINTZA

- Eibarko enpresa batek jendaurre eta biltegirako pertsona bat behar du, arduratsua eta gogotsua.
- Ordenagailuko gutxieneko ezagutzak eskatzen dira

Interesatuak bidali curriculum-a helbide honetara:
29 Posta kutxatila 20.600 EIBAR



- **tartak**
- **enkarguak**
- etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Nerea Alias SAIOETAKO AURKEZLE-DINAMIZATZAILEA

"Miresten duzun jendearekin hausnarketa egiteko aukera gutxi dago"

- Aurtengoa Ika Mizkan parte hartzen duzun lehen aldia da?

Bai lehen aldiz dihardut honetan, iazko edizioan umea izan berri harrapatu ninduten eta ezetz erantzun behar izan nien, baina aurten denboraz hobeto nagoenez berehala eman nuen baiezkhoa eta lehen saioa egin dugu, aurreko astean Ordizian, eta oso esperientzia polita izan zen. Eibarkoa bigarren saioa izango da. Ni gaztea izanda ere, gazteagoa, 18-20 bat urte izango banitu, parean horrelako saioetan parte hartzeko aukera suertatuz gero ez nuke zalantza izpirik izango, duda barik parte hartuko nuke, gutxitan izaten delako miresten duzun jendearekin batera horrelako hausnarketak egiteko aukera. Azken batean mahainguruetan parte hartzen duten aurpegi ezagunak sarritan erreferentzia dira gazteentzat eta, alde horretatik begiratuta ere, aukera paregabea dela uste dut. Oso giro polita sortu zen aurrekoan, sinplea baina era berean sakona.

- Nolako saioak dira?

Nik aurkezpen moduko bat egiten diet gazteei, baina mahai gainera aterako dituzten gaiak ez ditut nik azaltzen, horretarako pertsonaia ezagunekin grabatutako bideoa proiektatzen diegu eta horien gogoetak eta zuzenean kamerari botatuko galderak dira gazteen solasaldietarako abiapuntua.



- Ordiziako saioan nolako kontuak azaldu ziren?

Anekdotak txiki asko irutzen joan ziren. Adibidez, jende ezezagunarekin lehen berba euskeraz egitea zenbat kostatzen zaitgun komentatu zen, edo nola besteei euskeraz ikasteko etenbarik eskatzen diegun arren, euskeraz dakigunok gero erderara nola jotzen dugun... Euskeraren egoera hobetzeko asmoz saioetan autoanalisi modukoa egiten dela esan dezakegu.

- Helburuetako bat gazteak euskeraz berba egiteak duen garrantzia ohartaraztea, kontzientzia piztea da. Horren premia dago?

Inguruaren arabera egoera aldatu egiten da, toki batzuetan errazago egiten da euskeraz eta beste batzuetan erderara gehiago jotzen da. Edozein modutan ere, etorkizuna gazteak dira eta datuek argi azatzen dute horien %90k edo gehiagok euskeraz badakitela, beraz arazoa erabilerara da. Hogei laguneko koadrilan denek euskeraz jakinda ere zergatik egiten du te berba gaztekeraz? Salbuespenak salbuespen, euskerak gaur egun nahiko egoera ona bizi du, baina gazteei dagokier horri eustea edo, ahal dela, egoerak hobera egiteko pausoak ematea. Orain dagoena lortzeko ahalegin handia egin da eta pena litzateke atzera egitea.



Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS





Beilatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

Bulegoa:
Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·



Fa. Enterradores y Crematorios



eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS



Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena

www.eitek.net



J. IGNACIO ARMENTIA (irakaslea)
"Aldaketak izan dira komunikabideetan heriotzak tratatzerakoan"

Jose Ignacio Armentia eibartarra UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea da eta orain dela gutxi "El tratamiento de las muertes violentas en la prensa vasca. ETA, violencia de género y siniestralidad laboral (1990-2010)" liburua kaleratu du, beste hiru irakaslerekin batera. Horko nondik-norakoak argitu dizkigu.

- Zergatik aukeratu dituzue hiru heriotz mota horiek zehazki?

Nevadako Unibertsitatearen "Center for Basque Studies"-ek azken 20 urteotan ETAk egindako atentatuei buruzko informazioetan Euskal Herriko egunkariaren aldetik zer bilakaera gauzatu den aztertzea eskatu zigun. Otu zitzaigun ikerketa sakonago batean sartzea, beste heriotz mota batzuetan egondako eboluzio informatiboa ere ikusteko. Espainiako Zientzi eta Berrikuntzarako Ministerioak proiektua onartu eta finantziatu zigun 3 urtetan egiteko.

- 20 urteko tarte horretan, non gertatu da aldaketa nabarmenena?

Aldaketa nabarmenak izan dira ETArek atentatuen kasuan eta baita genero indarkeriak sortutako heriotzetan. Lan istripuetan bilakaera informatiboa askoz motelagoa izan da. 1990ean ETArek heriotz-atentatuak ez ziren beti lehen orrialdeko albiste nagusia; hori 90etako hamarkadan zehar erabat aldatzen da. Bestalde, estilo informatibo neutro batetik estilo interpretatibo-opinatibo batera pasatzen da. 1990ean genero indarkeriak eragindako heriotzak arlo pribatuko unean uneko gertakizunak bezala kontatzen dira; 20 urte geroago gizarte osoaren arazotzat erakusten dira, arlo pribatutik publikora pasatuz. Jauzi kualitatibo hori ez da gertatu lan istripuekin. Lan ezbeharren biktimak, kasu gehienetan, anonimoki dira; hala ere, aldaketatxo batzuk ere somatzen dira, orain dela egun batzuk Leongo meatzariarekin gertatu den bezala.

- Sentsazionalismoak ez dihardu gero eta indar gehiago hartzen?

ETArek atentatuen irudiak gero eta hunkigarriagoak dira, biktimen senideei eta lagunei ere garrantzia ematen zaie, baita atentatuak gaitzesteko burutzen diren ekimenei. Genero indarkeriari dagokionez, oraindik ere sentsazionalismoak eta morboak ez dira salbuespenak hedabideetan, genero indarkeriaren tratamendu informatiboari buruzko deontologia kodeek kontrako aholkatzen badute ere. Askotan iturri horiek erasotzailearen irudia "normaldu" nahi dute. Iturri espezializatu gutxi agertzen dira eta biktimenzako informazio erabilgarriaren gabezia ere somatzen da.

- Lanarekin jarraitzeko asmoa duzue? Esparru berriak tratatu?

Ministerioari urtebeteko luzapena eskatu diogu. Badira beste heriotz batzuk arreta berezia sortzen dutena: hor daukagu Asunta Basterraren kasua, edo Euskadin Amaia Azkuerena. Arlo horretan egondako aldaketa informatiboak ere aztertu nahi dugu.



Umeendako antzerkia bihar

La Papa Teatro antzerki taldeak "Amama Anaren bidaia" umeentzako antzezki zuna euskeraz taularatuko du bihar zapatua, 17.00etan Coliseoan (4 euro). Umerez gainezka egiten duen lana Ricardo Combik zuzentzen du eta antzezleak Izaskun Asua, Nazaret Froufe eta Markos Gimeno Vesga dira.



Udalarentzat Espainiako mailako argazkilaritza saria

Espainiako Argazkilaritza Konfederazioak Eibarko udalari Argazkilaritza Sari Nazionala eman dio "Mezenas" kategorian, Klub Deportiboko Argazki Taldeak egindako proposamenari esker. Argazki-talderen bati bere proiektuak garatzen laguntzen dioten erakundeek ematen zaie udalak jaso duen sari hau. Berria jakin eta berehala poza agertu dute udal ordezkariak eta, horrekin batera, sari jasotzeko proposamena egin duen Klub Deportiboari esker ona adierazi diote. Espainiako Argazkilaritza Konfederazioak orain dela urte batzuk, 2008an Deporrek argazki taldeari ere eman zion argazkilaritza sari nazionala, taldearen ibilbideari eta egindako beharri errekonozimendu gisara.



Lau argazki erakusketa

Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldeak antolatuta, azaroan honako erakusketa hauek ikusteko aukera izango da: Depor tabernan Kataluniako AFTDAO (Berga) elkarteko lanak egongo dira ikusgai, El Ambigú tabernan Juan Manuel Lucena (Ermua) argazkilaria Panoramikak izenburuko erakusketa egongo da martxan, Portalea tabernan, berriz, Jose Ignacio de Castro eibartarraren lanak ipiniko dituzte eta Juan San Martin Liburutegian, Saharari eskainitako topaketen harira, Jose Luis Irigoien hango kanpalekuan hartutako irudiak egongo dira ikusgai.

Erriberako produktuen oterra eskuragarri

Zazpiak Bat Harreman Sareak abiarazitako Errigora ekimenak Nafarroako Erriberari laguntzeko "Nafarroa hegoaldeko uzta, euskarari puzka" kanpaina ipini du martxan eta horrekin bat egin du... eta kitto! Euskara Elkartek. Proiektuak Nafarroa hegoaldeko produktuei bidea ematea eta "eremu ez eskalduna" izendatutakoan euskalgintzari bultzada ematea bilatzen du eta udazkeneko kanpainan Erriberako produktu-saskiak salgai ipini dituzte. 50 euro ordainduta bi botila olio (bat ekologikoa), 3 piper poto (bat ekologikoa), potxak, kardoak, bo-



rraja, orburuak, 2 zainzuri lata, tomate-pikillo saltsa (ekologikoa) eta barazki krema (ekologikoa) dauzkan oterra eros daiteke eta diruaren %25 euskarari laguntzeko bideratuko dute. Eibarren AEK-n eta Udal Euskaltegian

eta Juan Antonio Mogel ikastolako zentruetan egongo da erosteko aukera: interesatuek azaroaren 14ra arte izango dute eskaerak egiteko epea eta saskien banaketa eta ordainketak azaroko azken astean egingo dira.

Queen taldea gogoan Astelenan

Azaroaren 23an Dios Salve a la Reina, Queen-en omenezko taldeak kontzertua eman go du Eibarren, Astelena frontoian, Udalak, Club Lambrettak eta Jai Productions enpresak elkarlanean antolatuta. Azken urteotan


egindakoaren bidetik, San Andres jaien inguruan kontzertu berezia antolatu nahi izan dute eta oraingoan ekarriko duten ikuskizunari esker Freddy Mercury berriz taula gainean ikusteko aukera izango da, hil zela 22

urte beteko den egunaren bezperan. Emanaldia 23.00etan hasiko da, baina atekak ordubete lehenago zabalduko dituzte. Sarrerak salgai daude dagoeneko (22 eurotan), Eibarren Portalea, Birjiñape, Trinkete, Caserio eta Terraza tabernetan; Elgoibarran, Lanbroan; Ermuan, Xaguan; eta Durangon, Gambrius. Horrez gain, Kutxabank-en ere erosteko moduan ipiniko dituzte. Antolatzaileek aurkezpenean esandakoaren arabera, "jendea kontzertura joatera animatu nahi dugu, horrelako ikuskizunak herrian bertan ikusteko aukera gutxi izaten da-eta".



22 urte dira Freddy Mercury Queen-eko abeslaria hil zela.

laburrak



EGAÑAREN HITZALDIA

Azaroaren 19an Andoni Egaña... eta kitto! Euskara Elkarteen egoitzan (Urkizu, 11n) izango da, 19.00etatik aurrera "Zer moduz doa euskara?" izenburuari jarraituta berba egiteko. Euskara elkarteak antolatutako hitzaldira sartzea libre eta doan izango da eta Egañak jorratuko duen gaian interesa duen edonor ongietorria izango dela aurreratu dute antolatzaileek.

VERDIRAKO SARRERAK

Opera Divertimentok Sostoa abesbatzarekin batera azaroaren 30ean 20.30etan Coliseoan emango duen "Viva Verdi" kontzerturako sarrerak salgai daude, antzokiko lehiatilan astelehenean 19.00etatik 20.00etara eta barixakuetan 21.00etatik 22.00etara eta interneten, www.kutxabank.es helbidean (10 euro).

ERAKUSKETA

Azaroaren 8tik 11ra arte "Artistas sin querer", sexu-gehiegikeriak jasan dituzten umeei terapietan egindako marrazki erakusketa egongo da ikusgai Untzagako jubilatutxan, gaur eta astelehenean 19.15etatik 21.15etara eta zapatu eta domekan 12.00etatik 14.00etara.



Bartolome Egurrola Azpiazu

(1926-V-17 / 2012-XI-14)

LEHEN URTEURRENA

Sekula ez zaitugu ahaztuko

(Emaztea, seme-alabak, bilobak eta senide guztiak)

URTE-MEZQA: azaroaren 14an, 19.00etan, San Andrés parrokian.



Asier Errasti jaialdiko laburmetraien proiektzioak

Plano Corto elkarteak antolatutako XIV. Eibarko Asier Errasti Laburmetraia Jaialdirako lanak jasota eta finalistak aukeratuta, horien proiektzioak datorren astean eskainiko dituzte Coliseoan, astelehenetik aurrera egunero 20.00etan eta sarrera doan izango da. Javier Agirresarobe Sarirako finalistak Josecho de Linares ("Mi ojo derecho"), Chema García Ibarra ("Mistero"), Jorge Dorado ("El otro"), Curro Rodríguez Villalba ("No hair, no paranoia"), Adrian Agrelo ("The Baskles"), Maria Gordillo ("Presence Required"), Daniel Gil de Suarez ("Buenos Aires"), Manuela Moreno ("Pipas"), Borja Cobeaga ("Democracia"), Sergi Martí Maltas ("Division Azul"), Manuel Aguilar ("Hoy quiero confesar"), Kepa Sojo ("Loco con ballesta"), Raul Mancilla ("Formen Fila"), Angel Gomez Hernandez ("Y la muerte lo seguia"), Jon Aitz Urrutxi ("On egin"), Juan Manuel Aragon ("I feel lost"), Andrea Casaseca ("Sinceridad"), Javi Muñoz ("30 segundos") eta Xaco Baño ("Anacos").



Animazioan Ibizene Oñederra ("Hotzanak, for your own safety"), Juanma Suarez ("Alfred y Anna"), Coko Riobóo ("El ruido del mundo") eta Francisco J. Cabrera ("Project K-9") lehiatuko dira eta euskerazko atalean, berriz, Asier Altuna ("Zela Trovk"), Kote Camacho ("Elkartea"), Asier Urbieta ("Arconada") eta Ander Parody Garai ("Bosgarren segmentua"). Sari banaketa ekitaldia, berriz, hilaren 16an (zapatuan) izango da 19.30etan Portalean eta orduan emango dituzte ezagutzera irabazleen izenak.

Bakailao txapelketarako izen-ematea zabalik

Astelehenaz geroztik zabalik dago XXI. San Andres Bakailao Txapelketarako izen-ematea eta azaroaren 14an 19.00etan itxiko dute. Parte hartzeko interesa dutenek Pegorara jo beharko dute izena emateko. Gehienez 50 bikote onartuko dituzte eta izena emateko kuota 30 eurokoa da. Udalak olio (oliba-olio extra garbia, 0,7 graduko)



eta bakailaoa emango ditu (azaroaren 22an, Untzagan izango den karpan jasoko dira, 19.30etan). Partehartzaileek ostera bakailaoa prestatzeko behar diren osagaiak, berakatzak eta tresna guztiak (lapikoa barne) eraman beharko dituzte. Txapelketa azaroaren 24an (domeka) jokatu da, 11.00etatik aurrera Untzagan eta bikoteek 12.30etarako amaitu beharko dute pili-pil modura egindako bakailaoa. Onenentzat hainbat sari banatuko dituzte.



"Hijos de las Nubes" dokumentalaren bideo-foruma egin zuten.

Mendebaldeko Sahara protagonista

Liburutegiak Topaleku programaren barruan, azaroan Mendebaldeko Sahara ardatz izango duten hainbat ekimen antolatu dituzte elkarlanean Juan San Martin Liburutegiak eta Eibar-Sahara elkarteak. Hil osoan Sahara ezagutzera emateko materialak biltzen duen gida bibliografikoa eta interesgunea prestatu dituzte eta Jose Luis Irigoienek argazki erakusketa hildaren amaiera arte ikusgai egongo da. Horrez gain, aste honetan Alvaro Longoriaren "Hijos de las Nubes" dokumentalaren inguruko bideo-foruma egin da eta datozen egunotan ere hainbat jarduerak egingo dira: azaroaren 13rako Mendebaldeko Sahararen egoerari eta Eibar-Sahara elkarteari buruzko hitzaldia eta bideo-proiektzioa antolatu dituzte (19.00etan liburutegian). Azaroaren 20an sukaldaritza tailerra egingo dute (18.00etan Portalean) eta parte hartu nahi dutenek liburutegian izena eman beharko dute, plaza kopurua mugatua da eta. Eta azaroaren 22an, 18.00etan Eneritz Artetxek "Saharako istorioak" izenburuko ipuin-kontalari saioa eskainiko du umeen liburutegian, 18.00etatik aurrera.



Ikuskizun berria Pirritx, Porrotx eta Marimotots-ekin

Azaroan Pirritx, Porrotx eta Marimotots Eibaren izango dira "Bizipoza" ikuskizun berria aurkezten. ... eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta, lau funtzio hartuko ditu Hezkuntza Esparruko antzokiak: azaroaren 15ean (barixakua) 17.30etan eta 19.30etan eta azaroak 16an (zapatua) 16.30etan eta 19.00etan. Zapatuko funtzioetarako sarrerak agortuta, barixakurakoak salgai daude Urkizuko e&m argazkidendan, El Tio Palancas-en (Juan Gisasola) eta Gozokin (Bidebarrietan eta Sostoatarrenen), 8 eurotan.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IZARO, astelehenian bost urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez



Zorionak, EKAIN. Haunditzen, haunditzen... bazoiaz haunditzen... Sei patxo potolo famelixaren partez.



Zorionak, IRATI Zarraua, astelehenian zazpi urte egin zenduaz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GAIKZA, urriaren 29xan zortzi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Garaziren partez.



Ongi etorri, IGOR, urriaren 27xan gure artera etorri ziñalako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, BEÑAT, martitzenian urtebete egin zendualako. Muxu haundi bat ama, aitta eta Ibaixoren partez.



Zorionak, NORA Arakistain Ormaetxea, etxeko sorgintxuaren 3. urtebetetzian. Muxu potoluak zure famelixaren partez.



Zorionak, KAREN, neska haundi, domekan bost urte egingo dozuz-eta. Muxu potolo bat Naiara, aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, ASIER Mallia Moreno, urriaren 28xan sei urte bete zenduaz-eta. Muxu asko amama, aitxitxa eta osaben partez.



Zorionak, MIREN, etxeko "bitxito", gaur urtebete egingen dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANDER, bixar hiru urte egingo dozuzelako. Muxu haundi-haundixak zure guraso eta famelixaren partez.



Zorionak, CELIA Rubio Valera, domekan zazpi urte egingo doduzelako. Etxeko printzesarentzat, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HIART, hillaren 4an bi urte egin zenduazelako. Famelixaren eta, batez be, Ekainen partez.



Zorionak, XABIER, gure bost urteko txapelduna! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LUKA koala, eta jarraitu txiribueltak egingen eta hain pozik bizitzen. Patxuak danon partez.



Zorionak, LOREA Penedo, atzi sei urte egin zenduaz-eta. Joneren eta etxekuen partez.



Zorionak, IZAR, domekan bederatzi urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, PAUL Iriondo Albizu, aurreko domekan hiru urte egin zenduaz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, EKHI, hillaren 12xan hiru urte beteko dozuz-eta. Patxito haundixa famelixa guztiaren eta, batez be, Maddiren partez.




Zorionak, ARIANE Muñoz, martitzenian lau urte egin zenduaz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, JON, zure 7. urtebetetzian. Lideren, aittaren eta amaren partez.




Zorionak, IKER Lazkano Kortina (urriaren 28xan, lau urte), MARTIN Kortina (azaruaren 6xan, lau urte) eta OIER Kortina (azaruaren 11n, zazpi urte), zuen urtebetetzietan. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GANIX, bixar urtiak egingo dozuz-eta. Ondo-ondo pasa eguna. Etxekuen partez.



Zorionak, ARIANNE eta amama ROSA. Famelixaren partez, egun darra pasa. Asko maitte zaituzten Monika, Ander eta Maddi.



Zorionak, MIGUEL eta GOIA, ezkondu ziñaziela 60 urte bete diran onetan. Famelixa guztiaren partez.

Zorionak, EDU eta ITZA, urriaren urtiak bete dozuzelako. Laztan haundi bat danon partez.



BARIXAKUA 8

INDIANOKUA

16.30. Fimo tailerra. Indianokua gaztelekuan.

KASTING-A

18.00. "Joven El-Joven Ella" I. Modelo Lehiaketarako kasting-a. El Corte Inglesean.

ANTZERKIA

20.30. "Guernica 1913", Banarte taldearekin (5 euro). Coliseoan.

MUSIKA

22.30. Jam Session. Ez Dok tabernan.

ZAPATUA 9

1944-an JAIOTAKOAK

13.00. Arkupe tabernan zapiak banatu. Piskolabisa.
14.00. Talde argazkia.
15.00. Bazkaria. Unzaga Plaza hotelean.

ANTZERKIA

17.00. "Amama Anaren bidaia" umeentzako antzezkiuna, euskeraz (4 euro). Coliseoan.

INDIANOKUA

17.00. Fimo tailerra. Indianokua gaztelekuan.

ZINE EMANALDIA

17.30. "Rapunzel" umeendako filma. El Corte Ingles-ean (aretoan).

MAGOSTO JAIA

Arratsaldez. Galiziako Etxekoek gaztainak, txorizo pintxoak eta Ribeiro ardoa salduko dituzte, Os Galaicos-ekin. Urkizun.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren kalejira, Untzagatik hasita.

KONTZERTUA

20.00. Coral Sardinero abesbatzaren emanaldia. San Andres elizan.

DOMEKA 10

MAGOSTO JAIA

Goizez. Galiziako Etxekoek gaztainak, txorizo pintxoak eta Ribeiro ardoa salduko dituzte, Os Galaicos taldearekin.
12.00. Umeei gaztainak banaketa doan. Urkizun.

ASTELEHENA 11

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Toki.

SOLASALDIA

11.00. "La participacion de los trabajadores en el proyecto empresarial". Hizlariak: Sabin Azua (B+I Strategy), Juan Mari Uzkudun (Gipuzkoa Berritzen) eta Lorenzo Mendieta (Alcorta Forging Group). Moderatzailea: Joxe Mari Ulazia. Armeria Eskolan.

GAZTAÑERRE

19.00. AEK euskaltegikoak Paloma tabernan elkartuko dira, kantuan jarduteko. Trikitilariak lagunduta Ipuuara kalejiran.

LABURMETRIAK

20.00. XIV. Asier Errasti laburmetraia jaialdia, lan finalisten proiektzioa. Sarrera doan. Coliseoan.

MARTITZENA 12

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "El artista Leonardo da Vinci, el politico Maquiavelo, el soldado Cesar Borgia y corsarios vascos", Urko Barros. Armeria Eskolan.
17.00 eta 18.30. Joskintza tailerra. Portalean.

LABURMETRIAK

20.00. XIV. Asier Errasti laburmetraia jaialdia, lan finalisten proiektzioa. Sarrera doan. Coliseoan.

EGUAZTENA 13

IKASTEN

09.20. Mendi-ibilaldia: Gernika-Busturialdea. Ego Gaineke autobus geltokitik.

HITZALDIA

19.00. Mendebaldeko Saharari eta Eibar-Sahara elkarteari buruz. Bideo-proiektzioa. Liburutegian.

LABURMETRIAK

20.00. XIV. Asier Errasti laburmetraia jaialdia, lan finalisten proiektzioa. Sarrera doan. Coliseoan.

EGUENA 14

IKASTEN

10.00. Gas hornikuntzaren inguruko hitzaldia. Pedro del Olmo. Armeria Eskolan.

IKA-MIZKA

10.00. "Ika-mizka. Eta hik, nola bizi dunk euskara?". Hezkuntza Esparruan.

ODOLA EMATEA

18.30. Odola emateko saioa. Anbulategian.

LABURMETRIAK

20.00. XIV. Asier Errasti laburmetraia jaialdia, lan finalisten proiektzioa. Sarrera doan. Coliseoan.

jaiotakoak

- Xuban Sanz Lopez. 2013-X-14.
- Carmela Zulueta Martin. 2013-X-19.
- Lander Martin Bedoya. 2013-X-24.
- Igor Toledo Isasi. 2013-X-27.
- Hossam Balla Bellach. 2013-X-27.
- Oihane Gayangos Macias. 2013-X-28.
- Xabier Lopez Hernandez. 2013-X-28.
- Laia Garcia-Pascual Sabugo. 2013-X-30.

hildakoak

- Kevin Antonio Rojas. 28 urte. 2013-IX-23.
- Belisario Hernandez Jimenez. 91 urte. 2013-X-23.
- Crescencio Diez Merino. 87 urte. 2013-X-24.
- M^a Angeles Arrieta Murgoitio. 63 urte. 2013-X-25.
- Itziar Garate Loiola. 53 urte. 2013-X-25.
- Jaione Iraeta Santa Agueda. 92 urte. 2013-X-26.
- Jesus M^a Valenciaga Aranburu. 53 urte. 2013-X-27.
- Cesar Montero Rivas. 86 urte. 2013-X-27.
- Eduardo Gonzalez Juarez. 59 urte. 2013-X-28.
- Santiago Badas Fdez. de Maruri. 87 urte. 2013-X-29.
- Argimiro Rodriguez Rodriguez. 85 urte. 2013-X-31.
- M^a Angeles Marin Osa. 2013-XI-1.
- Jose Luis Acuña Santas. 77 urte. 2013-XI-3.
- Oliva Souto Dacosta. 82 urte. 2013-XI-5.

HOROSKOPOA

ARIES

Norbaiten zirrikak jasan beharko dituzu, baina ez dizu batere graziazirik egingo. Edozer gauza egiteko gai izango zara.

TAURUS

Lehen baino lehenago iluntzen hasi bada ere, egunak 24 ordu izaten jarraitzen du. Ez esan ez duzula gauzak egiteko astirik.

GEMINI

Konturatu zara Gabonetako argiak kalean ditugula? Gero eta lehenago ipintzen dituztela, eta zer? Aizearen beldur ala?

CANCER

Ez baduzu lortzen nahi duzuna, ez zaude konforme. Beti ezin izango duzu nahi duzuna lortu. Haserretu egingo zara?

LEO

Argi berezia izango duzu aste honetan. Zure bidea argituko duen eta ingurukoak gidatuko dituena. Ea amatatzen ez zaizun.

VIRGO

Zer axola dio modu batean edo bestean deitzea? Gauza da eginda dagoela eta zuk onartu egin beharko duzu, zer erremedio!

LIBRA

Zerbait botako duzu faltan, baina ez duzu jakingo zer. Pertsona bat ahaleginduko da azalpena ematen, eta ez diozu entzungo.

SCORPIUS

Bereziki gosetuta ibiliko zara. Ez da egongo aseko zaituen jakirik, beti jateko gogoz. Zure tripek ederki sufrituko dute.

SAGITTARIUS

Ez baduzu gustuko, zergatik egin? Ezetz esaten ikasi! Umore txarrez ibiliko zara kontu horregatik, baina ikasiko duzu.

CAPRICORNIUS


Arlo ekonomikoan berri ezinhobeak jasoko dituzu. Galdutzat ematen zenuen dirua berreskuratuko duzu. Ondo, ezta?

AQUARIUS

Zure erabaki batek gauzak aldrebestuko ditu; baina, zure zorionerako, kontua ondo amaituko da. Argiago ibili zaitez!

PISCIS

Barreanean minduko zaituzte eta kostako zaizu barkatzea. Intentzio txararekin egin ez badu, kontu gehiago izan dezala.



erakusketak

- ✓ **Azaroaren 10era arte**
TRYGVE INDRELID argazkilariaren "Retratos de la mujer noruega" erakusketa. Portalean.
- ✓ **Azaroaren 11ra arte**
"ARTISTAS SIN QUERER" umeen sexu-gehiegikeriaren inguruko erakusketa. *Untzaga jubilatuta etxean.*
- ✓ **Azaroaren 17ra arte**
INDALEZIO OJANGUREN XXVI. Argazki Lehiaketan saritutako lanen eta beste hainbat argazkiren erakusketa. Portalean.
- ✓ **Azaroaren 30era arte**
SAHARARI buruzko gida bibliografikoa eta **JOSE LUIS IRIGOIENEN** argazki erakusketa. Juan San Martin liburutegian.
JUAN MANUEL LUCENAREN "Panoramikak" argazkiak. *El Ambigü kafetegian.*
KATALUNIAKO AFTDAO (Berga) elkarteko argazkiak. *Klub Deportiboan.*
JOSE IGNACIO DE CASTROREN argazkiak. *Portalea tabernan.*

zinea Coliseoan

- "La gran familia española" (1 ARETOAN)
9an: 19.45, 22.30 / 10ean: 17.00, 20.00 / 11n: 20.30
- "Una cuestion de tiempo" (2 ARETOAN)
9an: 19.45, 22.30 / 10ean: 17.00, 20.00
- "El juego de Ender" (ANTZOKIAN)
9an: 19.45, 22.30 / 10ean: 20.00 / 11n: 20.30
- "Thor. El mundo oscuro" (ANTZOKIAN)
10ean: 17.00

farmaziak

- ✓ **barixakua 8**
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **zapatua 9**
 EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
 GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- ✓ **domeka 10**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **astelehena 11**
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **martitzena 12**
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
 GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **eguztena 13**
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
 GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguna 14**
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
 GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **barixakua 15**
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
 GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | | | | 2 | 4 | | |
| | 1 | | 4 | 8 | 5 | | |
| 2 | | 8 | | | | | 1 |
| | 9 | 4 | | 7 | 5 | | |
| | | | 2 | 8 | | 9 | 6 |
| 8 | | | | | | 2 | 9 |
| | | 3 | 7 | 9 | | | 8 |
| | | 5 | 8 | | | | 7 |

SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 3 | 8 | 9 | 1 | 2 | 4 | 6 | 7 |
| 7 | 4 | 1 | 8 | 5 | 6 | 9 | 3 | 2 |
| 9 | 6 | 2 | 4 | 3 | 7 | 1 | 8 | 5 |
| 8 | 2 | 7 | 5 | 9 | 1 | 6 | 4 | 3 |
| 1 | 9 | 6 | 3 | 2 | 4 | 5 | 7 | 8 |
| 3 | 5 | 4 | 6 | 7 | 8 | 2 | 9 | 1 |
| 4 | 8 | 5 | 1 | 6 | 3 | 7 | 2 | 9 |
| 6 | 7 | 9 | 2 | 8 | 5 | 3 | 1 | 4 |
| 2 | 1 | 3 | 7 | 4 | 9 | 8 | 5 | 6 |

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Presa dut pisua saltzeko Amañan, ganbararekin. Dena kanpora begira. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio onean. Tel. 671-439939.
- Pisua salgai Amañan, elizaren ondoran. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. Berriztuta. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 600-092588.
- Pisua salgai San Kristobal kalean. 3 logela, sukaldea eta komuna. 76 m². Tel. 626-806839.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta trasteroa. 130 m². Ilogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.
- Pisua salgai Polonia Etxebarria kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta aukera ona. 90.000 euro. Tel. 620-099120.

1.2. Errentan

- Logela hartuko nuke alokagai, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Tel. 660-833346.
- Pisua behar da Eibarren. 2-3 logelekoa. Tel. 652-532589.
- Pisua alokagai Legarre-Gain kalean. 3 logela, egongela eta komuna. Jantzita. Eguzkitsua. Tel. 678-956839.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Bigarren eskuko Nissan Cabstar kamioneta (kaxa irekikoa) salgai. Egoera eta prezio onean. Tel. 605-738476.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salga Eibarko erdialdean. 25 m². Tel. 671-258740.
- Garaje itxia salgai Juan Gisasola kalean (epaitegia). 21 m². Tel. 657-779650.

3.2. Errentan

- Estetika zentroa transferitzen da Ermuan ezin delako atenditu. Jardunean eta bezero finkoekin. Tel. 642-868412.
- Garajea alokagai Asua-errekan. Tel. 616-959625.
- Garajea alokagai Urkizuko dorreetan. Tel. 616-959625.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 698-567680.
- Eibarko neska eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 616-607121 eta 943-207183.
- Neska eskaintzen da kamarera jarduteko, umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 633-781038.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 671-258740.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 606-354982.
- Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 634-005760.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 680-526228.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 690-359554.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko (esperientzia), peoi moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 698-536267.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 673-436363.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 697-702158.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 659-731324.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernetan ontziak garbitzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Tel. 690-199860.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 642-609678.
- Fisioterapietan eta Terapia Okupazionalen lizentziatua lanerako prest. Esperientzia. Euskara ikasten dihardut. Tel. 610-949526.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 625-895460.
- Unibertsitate ikasketak egindako neska eskaintzen da arratsaldean lan egiteko. Tel. 646-369330.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko... Tel. 603-666671.
- 45 urteko neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko Eibar, Elgeta, Bergara eta Arrasate inguruan. Tel. 606-502567.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 600-332954.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko orduka. Masajista tituluarekin. Esperientzia. Tel. 632-430198.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 608-866535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 671-139176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Esperientzia. Tel. 662-252150.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-723264.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 660-073781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 689-798284.
- Jostuna eskaintzen da erropa edo ehunak konpondu edo egiteko. Merke. Esperientzia. Tel. 943-201180.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketala netarako. Tel. 659-101631.
- Mutil euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 688-819010.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 674-713262.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero edo sukaldari-laguntzaile jarduteko eta pintore moduan. Tel. 647-898016.

4.2. Langile bila

- Kiromasajista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ileapaindegi baterako. Lan-giro ona. Tel. 678-674250.
- Kamareroa behar da. Esperientziarekin. Tel. 615-750942 eta 943-750030.
- Estetizienek eta ileapaintzaileak behar dira, ordu solteetan eta gertaera berezietan lan egiteko. Bidali curriculum-a: makeupgaua@gmail.com
- Garbitzailea behar da asteburuetarako Arrateko jatetxe batean. Euskalduna eta autoarekin. Bidali curriculum-a Eibarko 46 posta kutxatilara.
- Sukaldaria eta kamareroa behar dira Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a: davidtubolab@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingeleseko irakaslea behar da LH1-eko ikasle batentzat. Astelehena eta eguaztenetan, 17.00etatik 18.00etara. Tel. 661-377537.

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko ikasleentzako klaseak ematen dira. Tel. 669-954099.
- Ingeleseko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketa ofizialeterako prestakuntza. Tel. 652-763264.
- Arte Ederretan lizentziatutako neska euskaldunak marrazketa eta margolaritza klaseak ematen ditu. Baita 1. eta 2. Hezkuntzako errefortzu-klaseak ere. Tel. 696-747532.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Sofa marroia salgai. 3 plazakoa. Cheslong -2'70-, somier -1,35-, relax laminak -1'35x1,90- eta koltoia. Tel. 645-007388.
- Ohe artikulatua salgai. Koltxoia, azaleko ezkatzen aurkako lamina eta garabiarekin. la berria. Tel. 666-746661.
- Sofa poli-piel salgai, plaza bikoa. Oin-azpiko etzangariarekin. Oso merke. Tel. 943-043008.
- 15 hilabeteko ume batendako pase-orako aulkitxoa erosi edo hartuko nuke. Tel. 685-755526.

AZKEN ETXEBIZITZAK GARAJE ETA TRASTEROAREKIN

LEGARRE GAIN kalean, EIBARREN
(Kooperatiba Erregimenean)

VPO

Babes Ofizialeko Etxebizitzak
LASTER ENTREGATZEKOAK!



SALMENTA-BULEGOA

Legarre Gain, 18 - 3. Esk.
PK: 20600 -EIBAR-
(Hitzordua aurrez eskatu)

Zona Alta
sociedad cooperativa

HELBIDE SOZIALA

Gregorio Ordoñez, 10
PK: 20011 -DONOSTIA-

TELEFONOA: 943 46 22 16

MUGIKORRA: 610 55 45 85

**53,30 m²tik 61,87 m²-ra arteko
etxebizitzak, garahea eta trasteroarekin**

*- 2 logelatako etxebizitza-adibidea,
garahea eta trasteroarekin (V-5)*

SARRERA:

24.717,92 € gehi BEZ

HIPOTEKATZEKO GAINONTZEKOA:

83.676,37 € gehi BEZ

KAPITAL SOZIALERAKO EKARPENA:

5.422 €

KUDEATZAILEA

IGCVS, SA

FINANTZATZAILEA



ERAIKITZAILEA



ANTZIBAR
CONSTRUCCIONES-ERAIKUNTZAK

Asko dira gure horts-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

 innovadental
clínicas



Createch Medical-en

etorkizuna gerturaten dizugu,
inplanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

 **bista eder**
clínica dental - horts klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

 innovadental [Azpeitia]
clínica dental - horts klinika

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com